



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO AZAROAREN 20KO EBAZPENA, 2024/2025EKO IKASTURTEAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDAKO KIDEEN MEREZIMENDUAK BIRBAREMATZEKO URTEROKO PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTENEK ALEGATUTAKO MUSIKAKO-JARDUERA BAREMATU BEHAR DUEN BATZORDEA ERATZEN DUENA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, 20. artikuluan adierazten duenez, urtero, eta ikasturteak bukatu aurretik, ofizioz egingo da zerrendetan dauden izangaien merezimenduen balorazio bat, aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera.

“Merezimenduen baremoari “ buruzko I. eranskinean, eta Musikako Irakaskuntzari dagokienez, hau adierazten da: Musikako espezialitatean aurreikusitako berariazko merezimenduak barematzeko, batzorde barematzaileak eratuko dira, zeinak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko baitira.

Aipatutako birbarematze-prozesuari hasiera eman behar zaion prozesua iritsi dela eta Musikako espezialitateetarako musikako-jarduera alegatzen duten izangaien merezimenduak barematu behar direla kontuan hartuta,

EBATZIDUT

Lehena.- Argitara ematea 2024/2025erako urteko birbarematze-prozesuan Musikako espezialitateetarako aipatuko I. eranskineko 5. atalean aurreikusitako merezimenduak baloratu behar dituen batzordearen osaketa.

Bigarrena.- Batzordea kide hauek osatuko dute:

Iñaki Iraola Aizpuru (Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionala).
Oier Etxaburu Mateo (CPM "J.C. Arriaga" Bilbao MKP).
Estitxu Oraá Martínez de Laño (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioa).

Hirugarrena.- Interesatuak gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 20a